

## **Basojabeen interesak defendatzeko erronka berria**

Presidenteak GEBEren estatutuak aldatzea proposatu zuen joan den batzarrean, bazkideak industriaren aurrean hobeto babes ahal izateko eta lehentasuna emateko



Urtebetez kovid pandemiak baldintzatu ondoren (2020an ezin izan baikiñen bildu), Gipuzkoako Baso Elkarteak (GEBE) bazkideen batzar orokorra egin ahal izan du azkenik. Joan den ekainaren 20an egin zuen, Azpeitiko San Agustin kultur etxean, ehun bat laguneren aurrean. Hitzorduak zuzendaritza batzordea berritzeko balio izan zuen, bi urtean behin egiten den bezala. Berrikuntza partziala, 2020an egin ezin izan zena. Kezka nagusia gero eta handiagoa den baso-abandonua da, lurraldeko zuhaitz-masaren % 16ra iristen baita. Horregatik, basoak birpopulatzeko deia egin zitzaizen jabeei.

Juan Carlos Berraondo GEBEko presidenteak egurraren merkatuaren egoerari, zuhaitz-masaren osasunari eta elkarteak dituen erronkei buruzko errepassoa egin zuen; eta horien artean, berrikuntza

garrantzitsu bat ekarri zuen: **elkartearen estatutuak aldatzea proposatu du**. Presidentearen iritziz, aldaketa horrek **basojabeen interesak industriaren aurrean hobeto defendatzea ahalbidetuko du**. Estatutuen aldaketa horren bidez, **elkartearen gobernu-batzarrerako sarbidea mugatu nahi zaie baso-produktuen negoziatzaile, errematatzaile, zerratzaile industrial, birsaltzaile edo egurraren eraldatzaile diren pertsona fisikoei edo pertsona juridikoen ordezkariari**. Eta era horretan, jabeak protagonista sentituko diren espazio bat sortu.

Denok osatzen dugu sektorearen balio-katea, baina batzuen eta besteen interesak gatazkan sar daitezke salerosketetan. Hau da, baso-jabeak bere zuhaitzengatik ahalik eta etekin handiena lortu nahi duen bitartean, erosleak bere interes legitimoa defendatzen du, ahal izanez gero lehengaia merkeago lortzen saiatuz.

Berraondok dioenez, salerosketan dagoen interes-gatazka natural horretan, GEBEK jabeen aldean egon behar du soilik, eta segurtasunerako eta interesen defentsarako espazio bat sortu behar du. Eta gune horrek baso-jabeen elkarteak izan behar du, Gipuzkoako Baso Elkarteak. Estatutuen aldaketa, lehenik eta behin, GEBEren zuzendaritza batzordean berretsi behar da, eta, ondoren, batzar orokorrean. Prozesua jada aktibatuta da.



Beste erronken artean, Berraondok **basogintza errentagarri egiteko premia** azpimarratu zuen. Alde horretatik, mugimendu interesgarriak hautematen ari dira: **eskari handia, prezioen igotzea, eta onura ekosistemikoei lotutako alternatiba berriak**. Hau da, gure zuhaitz-masek gizarte osoari eta planetari eragiten dieten onurak agenda politikoan sartu dira. Basoak CO2 hustutegi dira eta horren ordainean diru ekarpenak lortzea aukera berri bat izan daiteke etorkizunean.

Bestalde, basojabetza berrindartzea nahitaezkoa da, jabeen eskubideak bermatzea, alegia; izan ere, askotan, udal-esparruko ordenantza eta araudi asko basojabeontzako sentsibilitate ezarekin artikulatzen dira, baso-jarduera eta gizarte osoari egiten dion ekarpena kontuan hartu gabe. Puntu honetan, basojabeek izan duten erantzukizun eta konpromiso soziala azpimarratu nahi dugu.

### **Kudeaketa jasangarria**

Bestalde, denok dakigu gure **basoek garrantzi handia dutela klima-aldaketaren aurkako borrokan**. Zuhaitz-masen kudeaketa jasangarria erronka amankomuna da, etengabeko lana, eta basojabeak horretan murgilduta gaude. Urteak daramatzagu hori guztia garatzen saiatzen eta erronka handiak izango hemendik aurrera ere. Balio horiek guztiak eta sektorea ildo horretan egiten ari den ahalegina gizaritari helaraztea beste erronka bat da.

Gipuzkoa da Estatuan zuhaitz-masa gehien duen lurraldea. Gure lurrazaleko % 61 zuhaitzez estalita dago eta horietatik, % 80 jabe partikularrena da. Nabaria da azken hamarkadetan basoberritzeko eta zuhaitz-masa handitzeko lan handia egin dugula basojabeek. Kontuan izan behar dugu, lan horri esker Gipuzkoa eraldatu egin dela azken ehun urteetan, berriro lurralde berde bihurtuz. Horrela, azken mendean zuhaitz-masa hirukoiztu egin da. **Gipuzkoan 68 milioi zuhaitz inguru daude 121.677 hektareatan** eta horiek guztiek urtero 900.000 tona CO2 xurgatzen dituzte eta paisaia aberastu.

### **Pinuaren xingola marroia: irtenbiderik bai?**

Batzarrean, pinuaren banda marroiaz ere hitz egin zen. Aldundiak kendu berri ditu gaixorik dauden pinuak kentzeko dirulaguntzak. Hala ere, baso-jabeak landatzen jarraitzera animatu zituen Berraondok.

9.000 basojabe inguru gaude lurralde osoan eta horietatik, ia 2.800 elkartuta. "Berriz landatzera animatzen dut", esan zuen elkarteko presidentek.

Berraondok deitoratu zuenez, **"Badirudi, 15 urte baino lehen banda marroiari erresistentea izango den intsinis espezieko alerik ez dugula lortuko"**, eta, beraz, Gipuzkoan espezie horren egoera oso zaila dela eta desagertzeko arrisku handia dagoela. Gaur egun, 30.000 hektarea radiata edo intsinis geratzen dira lurraldean, zuhaitz-masa guztiaren laurdena eta erdiek, gutxi gorabehera, banda marroiaren eragin larria dute.

**Kriptomeria** japoniarra eta **sequoia** sempervirens gero eta gehiago ari dira okupatzen Gipuzkoan pinuak libre uzten duen azalera, eta itsas pinuak ere gora egin du. 1.000 hektarea kriptomeria birpopulatu dira 2019 eta 2020 artean, 500 hektarea sekuoia eta 400 itsas pinu. Halaber, beste espezie batzuk ere sar daitezke Euskadin, hala nola **zedro atlantikoa, picea sitchensis eta tsuga heterophilla**.

